

BIZKIAK

BERRIKETAK bere kalteak baditu.

Gelditu gabe itz egin bearrak naigabeak ematen ditu.

Askotan gertatzen da, berritsu asko itza ta pizza ari diran bitartean, lenengo esandakoa azkenerako aztu egiten zayela, ta gero beste aldera aritzen dirala, lengoaz batere gogoratu gabe.

Guztiyen parragarri gelditzen dirala.

Ori askotan eta askotan *Ollo-laurden'eko* andre Kaitana'ri gertatzen zayo.

Izan ere emakume arrek izketan aritzeagatik atzeko aldia ere salduko luke.

¡Arrenabotik irteten diran itzak non jaso!

Ontzi chikiya biarko ez litzake.

Alarguna da.

Ausoak ziotenez, emaztearen berriketak senarra beste ludira bigaldu zuten.

¡Nola bizi, goizetik gabera ainbeste itz entzunaz!

Dana dala *Ollo-laurden'eko* andre Kaitana alargun gelditu zan, bi semecho, bata bailo bestia ichusiyaguak, senarraren oroipentzaz zituela.

Elgeta'ra ezkondua zan, gero berriz Berastegi'ra etorri ziran.

Gipuzkoa'ko erri goichuenetan egon ziran beraz.

Andre Kaitana'ren itzak ongi entzuteko eran.

Itz-toki charrak aukeratu ez zituzten.

Alargundu zanian, bere semechuakin Donostira biurtu zan, eta emen eraso zion beñere baño kementsuago ta bikañago bere azken gabeko berriketari.

Onera etorri berriyan, senarrarea eriotza gatik agurrak oi dan bezela egitera adizkide batzuek etorri zitzaizkion.

Geruago ta guchiago ordia.

Azkenean, arren echera juateko iñorchok kemenik ez zuen.

¡Zan ere, nork eraman arren neurri gabeko berriketak!

Eta gero, len esan degun bezela, asieran ziona azkenerako aztutzen zitzayon, ta bere esan biarrarekin, len alde batera ziona, gero beste aldera esaten zuen.

Ala, lenengo arren echera juan zanetako batek zionez, bere senarraz itz egiñaz, andre Kaitanak lenbizi ura besterik gizarajuak eraten ez zuela esan omen zion; gero berriz, ikaragarrizko mozkorrak arrapatzen zituela.

¿Lenbizikua ala azkenekua egiya ote zan?

Biyak gezurrak noski.

Ollo-laurden'eko andre Kaitana itz egin gabe bizi ezin da. Itza, jana bañore biarragua du.

Eta itz egiteko era izan ezkerro gezurra ala egiya berdin dio.

Andre Kaitana'ren biziya aizea ez da, itza baizik.

Guztiak itzul egiten diote ordia, ta norekin itz egin ez duela, gelditu da.

Eta norbaitekin itz egin biar.

Zumaya'n senarraren aldeko aide batzuek baditu, ta gogoratu zayo itz aldi bat egitera ayen gana juatia.

Bestiak aizeak berritzea edo urak artzera juaten diran bezela, gure andre Kaitana'k itz egitera juateko asmua artu zuen.

Bestiak bizitzeagatik echetik alde egiten dute, ta baita andre Kaitana'k ere.

Itz egin gabe ezin bizi bai da.

Gogoratu bezela egiteko prestatu zan.

Arratzaldean echetik irten zan bere bi semechuak, jarri zizkaten jazkerakin len baño ichusiago zeramazkiela, ta burnibideko geltokira juan zan.

Artu zituen beretzako chartel bat eta semientzako bi chartel erdi, ta bultzgurdira juan zan.

An zeudenai, ta an sartzen ziran guziaz izketan erasotzen zioten, bañan guziak, itz guchi barru, burua biurtzen zioten abo zabalik andre gajoa utziaz.

Bultzia irten zan, Lasarte'ra irichi ere bai, Usurbil igaro zuten, ta bide guziyan iñorekin ezin itzegin.

Gure andre Kaitana lertzeko zoriyan zegon.

Ontan, bat batekan chartel ikuskaria agertu zan.

Eta beste bi edo iru lagunekin egon ta beriala, zuzen zuzen andre Kaitana'ren gana etorri, ta agur egin ondoren chartelak eskatu zizkion.

Zer poza andre Kaitana'k artu zuen, norekin itz egin arkitu zue-nian. Chartelak eman zizkion ikuskariari, baña bai izketari aguro eraso ere. Ezagun zuen isil aldi luzia izan zuela, ta itzak maramara zijoaiz-kiyon. Ura andriaren etorrera.

Ikuskariak, andre Kaitana'ren itzak ezertakotzat artu gabe, chartel erdiyak ikusi zituben bezin laster mutil koškorrai begira jarri zan.

Izan ere, batak amarren bat urte izango zituen, ta bestia ere zortzitik gora juango zan.

Azkenian andre Kaitana'ri galdetu zion:

—¿Mutil abek zer adin dute?

—Seina urte jauna. Bizkiak dira. Badaki jauna aben aita.....

Eta asi zan berriketa biziyari bere senar zanaren kondaira guziya, jayo zanetik il arterañokua esaten.

Gero oitu bezela len esana aztu zitzaion, ta jarraitu zuen esanaz:

—Badaki, jauna: Elgeta'n lenbizi bizitu giñan, gero berriz Berastegi'n. Ara, seme zarren au Elgeta'n jayua da, ta beste au Berastegi'n.

—¿Beraz, bat Elgeta'n eta Berastegi'n bestia?

—Bai jauna.

—Eta ¡¡bizkiak dira, e!!

A. DARRA